EUZKEL-ATALA

¡CAMPION!

Gaur dogu Campion yaunaren goratzarre eguna. EUZKADI'tik iñundik baño zorion beroagoak bialtzen deutsoguz. Laster, bai laster, asiko gara idazle andi onen iru ipuiñ euskeraratuak argitaratzen.

Zer esan geinke Campion yaunaz? Gaur esango deutsoe gauza ederrik Donostian batuko diran izlariak, eta areen esanak gogoan artuko doguz onara aldatzeko. Oiek asmatu dabena baño guza oberik ez dogu asmatuko. Bitartean, itz bi geure aldetik.

Naparroatik etorri zan argi-zirrinta, eusko-egunaren argi-urratzea. Agertu zizan izar bi, Iturralde ta Oloriz idazle ta napartar beroak, eta oen atzetik gure Campion, abertzalerik zarrena ta euskeltzalerik zarrena. Txikitatik eskolan ikasi gendun Oloriz yaunaren "Cartilla Foral". Axandik ikasi gendun Euskalerria ta Naparroa zer ziran. Iturralde'ren irakurgai yakintsuak gerozago irakurri doguz, bene benetan aberkoiak. Baña izar orreen urrena etorri zan eguzki betea: Campion idazle ta edestilari andia. Ez dot asmetan zelan itzegin Campion'en Gramatikeaz eta osterantzeko idaztietzaz. Nere txalorik beroenak, egin daben eta eragin daben lanari. Aspertzeke, urte luzeetan, Euskalerria edertu dau bere lan bikañakaz. Orain bizitzaren gandorrean bere, ez dau lanerako asmurik itzi. Ez dakigu zenbaterañoko bizitza emon gura deutson Yaungoikoak, eta zer indar daukan argitara bagako paperak zuzentzeko ta azaltzeko, baña gogora etorri yakuna esateko baimena emongo al deusku. Nabarro Villoslada idazlearen argitara bagako zerbait ba ei dau Campion'ek, benetan argitaragarria. Ipuin bat, novela bat, ez Amaya lakoa, ez "Doña Blanca de Navarra" lakoa, baña napar-gaia dauna. Izenik ez dakit ondo "Perez, Gonzalez" edo olakotsu bat dau. Ta ¿zer zan gizon aitoñen seme ori? Bere burua Naparroako erregeen ondorengo edo azikotzat ei eukan (nik gogoan daukadan beste batek lez) eta Naparroako Erreinua barriztauteko amesak ei ebazan. Bai gaia egokia! Pozik irakurriko leukie errege-gaiak eta ez diranak bere. Berak daki iñok baño obeto ze lani lotu; baña bear dan begirapenez gomutaraztea idiritu yat.

Gaur Donostian batuko diran euskeldun yakintsu ta Campion'en adiskide maiteakaz batean an izango gara gogoz edo izatez, gizon andi au maite dogunok, irakasle yakintsu au aintzat daukagunok.

EUZKADI'tik eta "Euskel-Atala"-tik batez bere, boakio gure atsegiñik sutsuena.

SAINT-PIERRE "ANXUBERRO" YAUNA

"EUZKADI"-K "ANXUBERRO"-RI TA "ANXUBERRO"-K "EUZKADI"-RI

Atzo agertu gendun A'tar J'ren asmu ederra, ta gaur beste zerbait erasteko asmuetan giñan. Zein euskeldunek ez baitetsi A'tar J'ren burupidea? Baña Gotzai barriaren beraren euskelduntasuna ta kristautasuna bere itzetatik ikasi dagigun, eta bizkortuko gara burupide ori indartzen. Ikus EUZKADI'k zuzendu eutson eskutitza ta Saint Pierre Anxuberro'ren erantzuna.

"Bilbao'tik,

19230'garrengo ereiaroaren 23'garrenean.

Saint-Pierre Jaun Aphezpiku hautatuari.
Baionarat.

Jaun behakurtsua:

Biziki atsegin handiz jakin dugu Aphezpiku maillarat altxatua izan zarela. Orai artio Eskual-Herria ta eskuara gutik bezala edertu ba dituzu, aitzina Elizak, zu horrela edertzearekin, zitu ugarigo eskatzen derautzu, bai Beretzat, bai Eskual-Herriarentzat.

Lavigerie Jaun handiaren ondoreko zarenez geroz, Jainkoari liotsa, haren jarraikitzaile bethea zu izaitea, arimen onerako ta Laphurdi'ren aipurako.

Ar itzazu Jaun Behakurtsua, gure atseginik minenak, eta Aphezpiku onhetsiko zaituztenean, ez ahantzi EUZKADI egunkari hontaz.

EUZKADI'ren jaurri-biltzarrearen izenean, *Errenteria'tar Gorgoni.*

Baionatik, 1930'garrengo ereiaroaren 25'garrenean.

Errenteria'tar Gorgoni jaunari.

Adiskide ona:

Zure itz beroek ekarri derautet beharrean, egundaino ez bezalako lokarriaz josia dago Eskualdunaren biotza, bere anaia guzieri, bereziki bere laukide oneri.

Ez dut ahantziko EUZKADI egunkari ortan idatzi nuela nere gogo osoak, emengo egitekoek astia uzten zautatelarik, ez eta ere Bilbao'n idazle lagunenganik nolako ongi ethorri gozoa artu nuen. Euskal-erriko seme pizkor oieri elaraziko dituzu nere agur minenak. Beren otoitzez lagunduko naute Elizaren sail nasai berri ortan.

Gauden anai bethi, Euskal-berriaren seme, euskara maitearen ume.—*J. Saint-Pierre Anxuberro.*

Cartago'ko aphezpiku lagun.

✤ ✤ ✤

Irakurle, itzik aski ba da. EUZKADI'ko lankide izana dogu, bere egiteko andiak astia emoten eutsoen artean. Beti senti izan du euskaldun bere burua apezpiku barri onek; baña orain batez bere "urrungo leiorretarako biotza artu bearrean" sekula baño lokarri estuagoz josia dauko biotza, eusko-anaiekaz.

"Elizaren sail nasai berri ortan" gure otoitzez lagunduko deutsogu, bai. Ta al dogun giñoan bai diruz bere. Diru ori ez dau beretzat, abadegei betiko bat eri, ango izkuntzakoari, bere ikasketan laguntzeko, beretarrei Egbangelioa azaldu daien.

"Gauden bethi Eskual Herriaren seme, euskara maitearen ume". Ta izan gaitezan orretzaz ganera "Euskaldun fededun".

OTZANDIYO

LENENGO YAUPA

Orue'tar Paul yaunak Yon deunegunian emon eban erriko eleiz nausiyan bere lenengo yaupia. Oste andiya batu zan eta itzaldiya Larra'ko Karmeldar batek ederto egiñ eban. Yaupari barri ta sendiyak artu beiye gure poz-agurrik sutsuena ta bere bizibide barriyan garaitza andiyak opa dautsoguz.

EGURALDIYA

Oso negarti ta astuna. Arto-baba ta bedarra ixango diran ustia da, baña gari ta patatak, uts. Beti negarra.

UBIDIA

Emeko erez-batza Yon deunetan Ubidia yuan da, ta onen usaiñian erriko gaztedi guztiya be bai ta gurañe eiñ de etorri ziran. Baña gauza polita yaso da. Irureun laurleko eskatu erezbatzak eta laureun emon, eta onek berbatik eldu ta laureunak artu. Oiñ berrogeirenbat urte Gazteiz'go periyan yaso ei zan onen antzeko bat:

—Eldu zan periyara erosle bat eta astoun baki diratuso: ¿Zenbat gura dozu asto origaitik?

—Ogeiko bi. Yabiak erantzun eutson.

—¿Gura dozu ogeta amasei ogerleko?

—Ez. Ogetamazortziyen emongo deutsut.

—Ez. Ogetamazazpitik gora txakur txiki bat bez.

—San Antoniñok yagon da gorde daitzula.

—Amaseiko gorriyari ogeikua deituten yakon lez, astuagaitik ogetamabi ogerleko baño ezeutzazan eskatu; ta bestiak txarto aituta edo berrogei ogerleko zala uste eban. ¡Mutillek Arratiyan bakarrik etxagozak!

ERIYOTZA

Astelenian il zan Yaunaren besuetan ikurton deunak eta Doipuruen onespena artuta Ajuria ta Landaluze'tar Bernarde andera Langarika'ren alarguna.

Yon deun arratsaldeko lauretan izan zan obiratzia ta urrengo goixeko amarretan il otoizketat oste andiya erdurik eleizkixun onetara. Beren seme-alaba ta senidiyari damotsegu gure tamal agurra ta otoi bat irakurliei beren gogo aldez. Goyan bego.

GURE TXAUNBURU ZARRA

Poz-pozik agurtu dogu erri onetan gure txaunburu ixan zan Iza'tar Ander yauna, ba Langarika alarguna'ren obiratzia zala ta emen ixan zan da. Apur bat sendatu dauen antza artu geuntson ba etxura onian agertu zan. Asko poztuten gara ondo ikustiaz eta erriko yai Mariña deunetan badaki nai ta ez etorri biar dabena osasunaz bada beintzat. Beroi gugaz gogoratuko da baña geuk be eztogu aiztuten eta aiztuko bez. Ondo bizi ta Mariña deunetarte.

BARRIKETALDI

—¡Kaixo, Txorromillo!

—Agur, Bekoleta aizkide.

—Nundik abil aspaldiyan?

—Bilbora izan nok arazo batzuk gaitik.

—Ze barri dok alde orretatik?

—Barri onik ez.

—¿Zer ba?

—Bultziyan aurkitu nintzuan Arratiya'ko gixon bategaz eta zer esanik bai yeukon Upetarrok erriyan itxi dabezan zorrak gaitik. Oso minduta yeguan.

—¡Bai yente modu ederra! Toki geiyenetatik auxe baño besterik eztok entzuten.

—Egiya dok. ¿Otzandiyon be zer ein yuek ba? Zorra ugari itxi ta kitu.

—¡Baña zelako zorrak!

—Zor batzuk errazoazkuak dozak eta augaitik lotsa barik iragarri leikezak.

—Baña ixillekuak izan arren be aldiya yuan, aldiya eorri yakiñ eiten dozak.

—Bai ba; ludi onetan etxagok goiz edo berandu yakingo eztau gauzarik.

—Bilbo'n Madrid'en Durango'n eta Gernika'n Erriberako lenkusuari agur egite arren eralgi dabezanak ¿nok ordaindu yozak?

—Upetarrentzat egiñ zan ikurriña, ¿nok ordaindu yok?

—Neskato'en irakasliak eskatuta bi milla lauerleko baño geiyago ordaindutako Iztegiya (Diccionario) ¿noren kontura ixan dok?

—Eta "Petxok" iru urte onetako auspo zergia (kontribucion) ordaindu yautzok udalari?

Onek korapillo guztiyok urrenguan azkatuko yuaguz. Agur.

BEKOLETA.

ERANDIO-GOIKOA

NEURE AGURRA

Lenengo aldiz idazten dodan gaitik, bialdu biar dautsut, Orixe, neure agurrik sutsuena, baita bere euskel idazle guztiari, esanik bide batez prestu eta sutsu nagola aurrerantzian geure euskera maitian idatziteko.

Jayokerarik naz euskelduna, baña EUZKADI'ko "Euzkel-atala" irakurri arren egunoroz, eztot iñoiz idatzi geure ele maitian. Onegaitik, estutasun aundia daukat idatziteko neure aburua, baña uste dot denporiagaz ondo idatziko dodala.

Aurkituko dozu, neure idazkiyan, euskera mordolloko itz edo berba asko, baña parkatu eta arteztutia eskatzen dautsut.

"Amez", "Txori" eta beste erri onetako euskel idazleari banako agurra eta neure laguntasun guztia aurrerantzian idatziteko emengo barriak.

EZPATA DANTZARIAK

Erri onetako mutil bizkorrak egin dabie ezpata dantzarako aldra polit bat, eta dabiltz oso pozik. Edonora joateko prestu eta sutsu dagoz.

Igaro diran igandian eta astartian, Deun Jon jayak direla ta, ederto dantzan egin eudien Sondika'ko landan, eta oso txalotuak ixan ziran.

EUSKEREA

Tamal andiagaz eta biotzeko mintasun osoagaz, ikusten dogu geure ele ederra geroago eta gitxiago egiten dala inguru onetan. Obeto esateko, umiak ez dakie euskerarik, euren gurasoak euskeldunak izan arren.

Lotsa aundikoa da au, eta guztiok gagoz indarra eta aurrerazpena emon biarrian geure euskera maitiari. Onegaitik ba, eskatzen dautsiet guraso, senide eta enparauari egin dayiela umiari geure euskera garbian.

BARRIAK

Etorri dira euren etxietara, udaldia igaroten, Bidaurrazaga'ren alarguna, bere seme Jon eta Bingen, geure adiskide maitiakaz, baita bere Torre-Txarroalde eta Montellano'ren sendi ospatsubak. Ondo etorriyak, eta udaldi on bat igaro dayiela.

"EUZKADI"-KO ITAUNKETEA

Erri onetako abertzaleak artu dabiez txartelak eta dabiltz biralduten EUZKADI'ra, bere lerroak beteta.

ASUKO.

ZEANURI

KOLDOBIKATARRAK IGANDEAN

Iragarrita egoan lez oso ederto ospatu zan yai begiko au.

Goxean Jaun-artzea gazteri danak. Amarretan jaupa abestuta ondo apainduta agerturi Andra Mari'ko elexea.

Arratsaldeko eleizkizunian itzaldi Aita Jazinto Karmeldar oso ederto. Ondoren ibil-deuna Goiko-elexatik Urraburu'n Plaza'ra. Emen berarizko leku bat zugatz orri da loraz apainduta.

Asiera:

Abestiak abesbatzak. Luistarren eresia ta "Ai, Peru, Peru".

Axpe luistarrak bazkunako gora-berak.

Euskerazko abestia-abeslarik.

Arana' Todor luistarrak itzaldia.

Bertsolari txikiak Sagarna Erramon da Manterola Gabirel. Aurok pelota partidue Juan Gatzaka'ko ta Eruazetxeta'ko Federikori.

Bertsolari nagosiak Sagarna Joseba ta Pujana.

Umien ariñeketa Urutxurta, Emaldi, Olivares de Emaldi txikie lenengo sariek aterarik.

Txirringulariak mutillak aldra bat aurkeztu ziren.

Ezaptadantzari txistulari txikiak txistua yota. Oso yai polita egin zan da erriko yente guztie egoan begira oso pozik txaloa ugari yoten ebela. Baita emen ikusi genduzan Bilbo'tik etorrita Errotaetxe'tar Iñaki jauna bere seme Iñaki'gaz.

JAUPA BARRIA

Gaur Jesusen Biotzaren egunian lenengo aldiz emengo dau jaupa barrie Etxezarraga'tar JuJlen jaupari barriak.

Andra Mari elexea guztiz apainduta loraz da argiz agertu da. "Pontifical" lenengo jaupa abestu da itzalkiro. Itzaldia Aita Florenzio Karmeldarrak zetan esan eztago zelan egingo eban bera aitatutea naiko. Aitabitxi elezgizonetatik Etxezarraga Gaztelu Elexabeiti'ko ikastetxeko nagosia da txaunburu jauna.

Oste andia erdu zan meza barrira Bilbo da Arteaga Orozko'tik be senideak ta abar.

Ondoren Gisasola'n yatetxean batu ziran 70 maikide.

BASERRITAR BAT.

OIARTZUN

Lengo igandian urteko jaia ederki ospatu gendun Luistarrak. Zazpiretan Jaunartze nagusia 300 dik gora baziran, abesti ta otoitz ederrak esanaz. Arratsaldean Aranburu'tar Franzisko apaiz jauna Oiartzuaz jatorrak itzaldi ederra, urren ibildeuna irudia lorez inguratua Miren alaben eta Mirarigillearen ikurriñak ere atera zituzten.

Deun Jon aurreko gabean oitura dan bezela sua ugari piztu zan txistulariak kalejira egin eta bere ereserkia juaz enparantzan sarrera egin zuten iru ezkillak ere ekiñ eta zelai soroak argi ta suz estaliak.

Bidealde, Eguzkitza ta Tolare txikikuak seme bana izan dute. Zorionak.

ENARA.

BERMEO'TIK

¿Esan leiteke Deun Jone'k egin dabela mirari aundi au eguraldiagaz egun bate-ik bestera aiñ-ariñ baketuteko. Goizian goizetik, arraintzale ta ez diran asko goizeko bost ta erdietan Deun Jon'en jaupia entzun da gero juan dira mendiak ziar txaka-txaka Doninera. Baztar errietatik be notintza andia juan da. ¿Aiñ Deun maite garria da berau? ¡nor egongora jun barik ba Gaztelu-gatxeera!

Amarratan ospatu da jaupa nagosia ta Bermioko endore ta ziñegotzi erri ikurriñ da guzti egon dira; jaupian amaituta gero, danak Matxitxakora izan da jun giñian geldi-geldika. ¡Gero Matxitxako'ko itxas argian azpiko bedar da lurrak ondo dakie amaiketatik eta ordu bat terdietararte ta iruratatik eta zazpiretarte zelan zapaldu diran. ¡Oraiñ Deun Jon de Deun pelari" bermiorrak ez diraz Bakiona baño, da ein deutsue toki onetan jai bat ospatutia Bakiori aurki egitiarren, ¿bai ospatu be?

Arek izan dozak jantzak eta brinkuak, baña tamal andia izan da ain toki gitxi egon dalako jantzarako, baña uste dot datorren urtian egokiago aurten baño egongo dela. Sendi asko bere egon da bertan euren bazkariakaz, gero bazkalduta udaltarrak egin dabe aurresku eder bat, da aurresku onetan Pujana jaunak eta Bermio'ko Alboren arraiñ olako buru edo (encargadu) danak egi eban aurresku ori urtiak kolkuan okiñ arren ondo bizkor, da azkar egin dabe jantzan, da erri guztia ondo jolastu ta gero zazpiretan erriratu ziran danok, zarreran biribilketa polit bat joiez amaitu zan zortziretarte jai au gero barriro asteko amaiketararte.

ABESTI ZIKIÑAK

Ez zan entzuten besterik erderazko abesti zikiñak baño, da eskaliak saltzen izan deutsuzenak bere danak loiak ziran eta erderaz euskerazkorik bat ez, baña lagune ta nik bat batera lerden ta zoli.

Geure aberri ekandu onak
Guztiz garbirik izteko
Abesti ta jantza zikiñak
Erre daiguzan betiko.

Au abestian amaituta gero itxi alde batera geure ituntasunak abesti zikinakaitik eta alai alai juan giñian Matxitxako'ra bazkalduten.

ATXIÑAKO EKANDU ZARRAK BERBIZTUTEK...

Deun Kepa egunian antxiña jai andiak egiten zirala ta... orain dabilz gixon batzuk ingi andi bat artuta izen-abizenak batzen Deun Kepa egunian eresia gaubeko amabitararte ipinteko gaztiak emekua amaituta juan esteitxezen Bermio'tik kanpora obetuago eleitxeke izango antxiñaku lez suzko-zezenak eta benetakuak ipiñi, ta pelota jokua be ekarri sarriago ustaldu ezteiden pelota tokiori. ¡Bai erritxarran jaia izan ba zan jai au ezan bapeztuko?

TXONITZA

Gorpuzti egunian, Eupeme Deunaren eleizan jaupa nagosian txonitz egin dan Anitua jaun agurgarriak euskaldun sutsu ta jatorrak itzok ziran maitasun eta siñismenagaitik.

ITXASOTIK

Aurten galduak gariaz atunak Euzkadiko itxasuetara ikertaldia ariñago ezpadago egiten. Makiña bat sendi ilgo deituz gosiak; baña oraiñ asmuetan dabiltzaz bazkide bakotxari laune ogerleko emoteko urtiegaz. Ainbet ariñen emon deutsela aitek euren ume kutunei sabelak betetzeko aren ogerlekuen posera, Deun Kepak ordainduko deusku geieigaz da.

DATOZANAK

Bostekua estutu deutsagu gure lagun urko dan Izpizua'tar Miren Joseba. Baita ere agurtu degu Garai, lau anaya eta Gabilondo ere bai, danak ikaste-etxetik atseden duten etorri diraz. Ongi etorriak izan zaitezala guztiok.

URKIDI.

GIZARTEKO AUZIA

ORAINTXE DA GARAIA

Oraindik asko ez dala, deitu giñien langille euskeldunei lenbailen elkartu ta gaurko nazpilla ontan laguntasuna i an zezaten. Dei ori indartzeko, egoki datozkigu, batean eta bestean bildu ditugun erakutsi ederrak.

Gaur dan egunean, nazpilla aundiya dabillela, agerian dago. Garayak aurreratzen dijozen bezela, lenago ez bezelako bearrak an da emen sortzen ari dira. Langilleak batez ere, asko eraldu dira, ogei, berrogei, egun urte barrutik, Nazpilla ontan, ezer indartu bearrik badago, langilletasuna ari noski.

Langille guziak batu eta gertatzeko sortu da "Union general de Trabajadores" deritzan gudarazte edo ejerzitu mardula. Langille guziak barruan sartu nai lituzteke, baño, danentzat, lekurik ez...

Batzuk or sartze ezkeotan, langille bat baño geiagok, askotxo maite dituzten iritziak, atez aldera utzi bearko lituzke-ta. Orregatik iritzi oriek galdu azi gabe, edo obetogo, iritzi oriek indartuaz, langilleak bere babesean gordeko dituan batasun bat bear da lenbailen.

Ontako jaioak dira "Solidaridad de obreros vascos" eta "Sindicatos católicos" izeneko batasunak.

Bizkarra'n ugaritu dira, eta Gipuzkoa'n ere, Eibar, Elgoibar, Plazentzi, Mondragoi, Aretxabaleta eta beste langille-erri, batzuetan ba-ditugu onelako elkarteak.

Elkarte oriek bere barruko langilleen izatea osatzen saiatuko dira, baño, legez, zuzentasunez, katolikotasunaren eraz.

Ortik ez dabillenak, beiñ edo bein, uste ez duala, ardi jantzita datorren otsoen baten atzaparretan erortzeko bidur izan.

Gure erri maitea, gaur, erri asko galtzen ari dan "revolucio" ontatik aldendu nai badegu, gure sinismena, moteldu, itzali eta galdu nai ez badegu, gure aunditasuna egiz opa badegu, langille euskaldunen elkarte oriek indarra artzea, bearrezko bidea da.

"Union general de Trabajadores" orren garaitzak. "Socialismo"-aren garaitza ez du urruti izango, oso gertu baizik.

Españi'ko "Socialismo"-ak orrei zor dio bere mardultasuna. Itz ederrakin "neutral" jantziaz apaintzen du bere burua, egintzak ordea, barrenean daramakin "Socialista" pozoia nabarmen azaltzen dute.

Bultzi edo trena ,burni bidean bezela, langilletasunak ere, katolikotasunak jartzen dion bidetik, juan bear du, eta orixe da, U. g. de T-ek egiten duan uts egitea. Ondorenak berriz, bakoitzak gogoratu.

✤ ✤ ✤

Idaztitxo au bukatu ezkero, irakurri det ondoren esatera nuana. "Socialista"-k—gixaixo billa noski—bere artean edozein sinismenekoentzat lekua badala, adierazten dute. Katolikoak, protestanteak, baita "ateo"-ak ere artuko ditugu. Onera datorrenari ez zayo zer dan galdetzen. Danetik artu ta, aze nolako nastea. Bada ez bada ere ordea aurretik bota, bere legetan. "La enseñanza en todos los grados, será laica"... esan nai du: "Erakusmena malla guztietan laiko edo eltza-gabekoa izango da"...

("Argia"-tik.)

DONOSTIA

ONDARRUKO ANTZOKI JAIETAN

Eragozpentxo batzuek larunbat ta igandeko jai abek izan zituan.

Larunbatez, "Titiritero" españarrak erriko enparantzan ziran eragozpen jabeak.

Igandean etziran "titiritero"-ak eragozpena jarri zutenak, errikoak baño jakin gendun, abertzale dirala esaten dutenak batzuk ere, bai omen dira.

Gure antzoki jaien ordu berian, ostikolarien jokaldi bat bertako C. D. Aurrerak antolatu zuben

Eragozpen ta guzi, oste aundia jai abetan izan da, batez ere emakumia.

Emakume ta neskatill eder ta gazteak, nun nai antzokian ikusten ziran, antzokien edertasuna, geigo edertzen zuben Ondarruko eskatil euskeldunen euskotasuna, pozgarri ezagun zan.

Bai berak ere pozik ziran antzerkien gertaerakin, alai ta partsu antzoki jaiak egin ziran.

Gu ere pozik ta alai ibilligera, Markverkiga ta lagunairi eskerrak.

Igande goizean, Antigua'ko Ama Neskutsaren txadonan jaupa entzun ondoren, ondarrutar arrantzale leial arekin batera, itxasoan igarotako aldi eder artzaz, orain-dik pozkiro oroitzen gera.

Aramaio, "Biar" "Txori-erreka" ta "Aberri" ere pozik agurtu nituben.

Etxarakuan Gora Ondarru ta gora Donostia, eusko abestiaz batera, ziran ondarru ta donostiarrak alkarri egindako agur maitatiarren amaia.

SEGURAKO JAIETAN

Eusko Etxeko antzezlariak Seguran ikusi naia, gaurko asmoa ez da Aur euskeldunen jaiak zirala ta, azteazken illuntzian, alkatien ongi etorri ta txistu ta zuzko zirien soñu artean, Segura iritxi giñan.

Antzoki jaien orduan bertan, dantza erriko enparantzan zalarik, antzokia bete, gañezka egin ta alboetako ateak zabaldu ziran, ikusi nairik zegon arien zaletasuna beteko bazan. Zaletasuna edo egarria bazegoan antxe.

"Neskazar" ta "Porrusalda" antzeztu ziran, ta jendien gogokuak zirala, egin ziran algarak, adierazi ziguten, Txaloak berriz, gortzeko laiñ bai.

"Otarra" guzien buru, gogotik landu zan biartzan guzia eratu ta antolatzen. Egin genduen aldi labur ua igaro genduen baño atseginago igaro ezin.

IZTUNDEA IRUN'A

"Bost urtian", ta "Ezer ez ta festa", antzeztera asteartian Irun'a oijua donostiko iztundea.

Irungo antzoki jaiau, bere zaindari jaietan Udalak eratua izaten da. Urtero txalotu degu, ta bai aurten ere, Irungo Udalaren erabaki onek, dituen baña jarraitzale geigo biar lituke Euskadi'ko Udaletan.

✤ ✤ ✤

Asteazkenian, Eusko ikaskuntzak, bere uda ikastaruetan antolatu duben eusko antzoki jaian ere, iztundeak antzeztuko du.

KANPION'I OMENA

Gaur eguardiko 12'an, Eusko ikaskuntzaren areto nagusian, Kanpion jaunaren omenez, jaitxo bat izango da.

Itzlarietako bat Barrena'tar Polikarpa degu. Atsegin izango degu berari entzutia.

GAXO

Baltzola'tar Gotzon gaxo dago.

Ez dedilla luzeroako izan gaxotasun ori.

ONGI ETORRI

Paris'tik Donostiratu da Jorda Endika sendalari ikasle gaztea.

LAGUN ZARRAK

Olabeaga'tar Pantzezka emen agurtu degu.

"TORKATI"-RI

Bai "Torkatiko" adiskide bai, zuk maite dezun Gipuzkoa ontan ere, badira zoritxarrez, gure euskel izenen aurka daudenak, ez uste izan arazo ontan, gozo gozo bizi geranik.

Ontan ere, beste aberri ta ele gauzetako eran, lau aundia egin bearra dago emen, ta euskel izen lan au "Euskaltzaleak" bazkun maitekor onek, ardura aundiz bere zaipean artu biar lukeala ta nago.

Euskel izenaren alde jandutzia, ez da politika egitia, askok uste oi duten bezela.

Politika egite arren, etzituben gure irakasle maite Sabin (G. B.) aundiak, euskel izen abek sortu ,eusko semeak, abizen euskotarra duten eran, izena ere izatearren baño. Politika balitz, etzituzten España ta Romak eman dituzten bezela, izen abek ontzat emango, emengo jaupari ta "Maestro ciruela" batzuek, ostikoperatu nai izan arren.

Euskel izen aben aurka yuatia, gure euskeraren aurka, gure eskubidearen aurka juatia da, ta ara or euskel izen aben zaindari "Euskaltzaleak" bazkunak izan biarlukealaren, zioa.

Gogor ontan ere, euskel izen aben azkatasuna kalian, txadonan, ikastolan, ta gudari etxian izatea lortu arte.

Baña izen abek itxuziak dirala esaten jarduntzen diranak, naiz ta berak Martiniano, Casiano ta Simeon bere sendikoairi deitu.

¿Izen abek, gure euskel izenak baño politagoak ote dira?

Politagoak ez dakit, baña—ondo irakurtzen badituzue—usaitsuaguak bai beintzat.

¡Ta zer usai gero!

ATARRENE.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Asteartean egon zan emen Itza'tar Ander yaupari euzkeltzale zintzua. Baita egun orretan egon ziran emen Untzalu'tar Margarite "Amagoya" ta Meutxaka'tar Elise anderea be.

—Bilbo'tik etorri zan Gine' Lonore neskatillia.

—Ermu'tik Atxa'tar Errapel eta emaztia.

—Lengo egun baten egon zan emen Arantzibia'tar Kepa Aita agustindarra.

—Emen alditxo bat igarota yuan zan Bilbo'ra Uriarte'tar Pantzeske anderea.

—Emen dago egun batzuetan Magunazelaya'tar Basilise.

—Arrasate'ra yuan zan Barrueta'tar Yoseba Mirena.

BEDERATZIURRENA

Igaro dan asteko barikuan asi zan Yosu-Biotz gozua'ren bederatziurrena. Illuntziko zazpi ta erdiyetan egiten da.

ERIOTZA

Igaro zan orrilla'ren 2'an Manila'n (Pilipiñetan) il zan Ortuoste'tar Pantzeska Aita agustindar lekaidia, emengo Markomiña-errotako semia. Yaunak zeruan euki begi bere arimia.

YON DEUNA

Asteartian, Garaitorre'ko Yon deuna'ren ermintan goizeko zazpiretan mezia emon zan, itzaldi ta guzti. Aurregun gabian suak egin ziran, eta tanboliñ soñuan dantzia egin zan.

Astearte arratsaldian, Artzubia'tar Marka emengo mutilla Urkiola-aldatzian bitxabalian biarrian ebillela, "alquitrán" tramankuluak estanda eginda, orabaltz irakiñez arpegiya bete yakon eta erreuna batzuk egin yakozan. Oberantza eginda dago; ta laster eta ondo osatzia opa dautsogu.

MAÑARIKO.

✤ ✤ ✤

ONDIÑO BE BAI...

Euskel izenatzaz Euskelerrian igaroten dana lotsagarrija eta negargarriya da. Beste edozein laterrijetan bertako itzkuntzan umiari ieznak ipintia bape ezta txoketakua, baña gure erriyetan... e? ortze kontu gero... Esan lei Eleiza ama santiak erabagita daukola batzar santuan Euskel izendunik eztala sartuko zeruan.

Errekaltelko lenguaren denporan gure erri onetan ainbat abertzalien umetxueri erderaz izena ezarri jake eta zegaitik? bertako txaunburuak umiaren aitari erantzuten izan dabelako Euskerazko izenik ezin lei ipini umiari, eta erderaz ipini biarko jako auxe orden artu dogu ta.

Aldi aretan abertzaliaren arija ain me ebillan ze, guztija zan gure lau ona birrindu eta ezereztutia eta guztija alan izango dalakuan siñeztuta geloitzen giñian.

Baña egin egiñean be eta uste barik nun irakurten dogun gure EUZKADI andijan Galdakao'ko Artzañari igaro jakona Euskel izenatzaz.

Jaungoiko laztana parkatu egijezu guztijori eztakije zer egiten daben da. Oin ziur ziur gagoz lengo eskubide guztijok geugan doguzala ta alkartu guztiok geure geuria dan guztia lortzeko eta ipini euskotar guztiok geure umetxueri euskel izen ederrak eta alan aberria egingo dogu.

KIKI.

AZPEITI'TIK

IRU AURRENA

Josuren Biotz gozuarena txadon nagusian Aita Agirre Josubite agurgarriak itzaldi sutsuakin illaren 24 bian asi zuan oste asko ibilia da bertan.

JOSUSEN BIOTZAREN EGUNA

Erri ontan jai osotzat artua dago. Oste guzia aundi txikiak eleiz biderunz ibilia da aitortokira ta mai donera eldu ez danik gutxi izango da.

USTE KABEKO ERIOTZA

Asteazkenean ustekabean il zan Fort'tar Balentine txit andre Jainkozkoa zan ta uste degunez Jaun erukitsuak Bere ondoan eukiko dula aren arima ala gerta dedila ba. Bere aide batez ere bere iloba Gaudenzi artu nere agur miña.

ATZERAPEN BAT

Datorren igandean Loiolako Gorpuz eguna dala ta Eskuzteko erromeria urrengo igandera utzi dute.

BATZARRERAKO

Poz aundiagoa dago beste ezertarako baño, bai abertzaleak asarre zar guziak etxeko latzean utzi ta juan maitetasun osuan. Lagundi bateko ikurriñaren Goiburu urrez egiña dalako. Guzien zoriona maitetasuna Bera gabe guzia zori txarra.

NAZIONALISTAN

Iritzi ona ikusteko poz aundia dago erri onetako biotz oneko nazionalistan artean.

ORRELAXE BEAR DA

Erri onetan sozu ta birigarrun maiteti asko dago Eleik badauzka sei sozu zein baño zein obiak; bat Bilbotik dauka eskatuba "Bizi bedi" ikasten ari da.

EGELARI OIEKIN

Errebala nagusi emen Elorza' Kepa'k zozuz ta birigarruz etxea betea euki bear du Ansola pelotari zar jatorrak ere euki biatu ale batzuk txistun erakaslari ta guzi alajaña Abarretegi'tar Mikel txistulari ospatsuba alajana gora txori maitati guzia ta txoriai txistun erkazlariai nere txalo sutsua.

PELOTA PARTIDU EDER BAT

Iretako pelota tokian datorren igandean Iretako txikia emengo Konpites bigarrenaren aurka. Goizeko amarretan asiko da. Irabazten dunak bereun laurleko beretzako.

PATIRKI

Urrestil aldian zer moduz? Ondo Errena zeorrekin al zendun? Erren biurri? Zumaia bidean bezela ibiltzeko ala? Etziok giro? Erren biurri bere txokoan ongi zeok. Eskerrak.

URREKO ZOROA.

AZKOITI

Deun Pelaio ziñopearen eguna ospatu zuten emen Hurtadotarren txapel olako langilleak urteroko eran zaindarien duten eran, jaupa nagusia euki zuben txadon nagusian txonitza egiñik jaupari agurgarri Alberdi'tar Domeka'k

ERIOTZA

Gure Jaunak ludi onetatik bestera eman digu ikurton deunak artu ondoren, gure adiskide ona zan Beristain'tar Joseba Miren erriko otseiña (G. B.). Laguntzen diogu atsekabian bere emazte eta [illegible] irakurlia otoi bere [illegible]

✤ ✤ ✤

Ostiralian etorri ziran txadon nagusiko txauneskin jotaldi bat egitera Aita Onofre Josulaguna Parisko Clotilde Doceaga txadonako txauneskindariaz, berekin [illegible] ten gure lagun abertzale donostiar [illegible] ere aspertu ezin eraño jardun zuten [illegible] organo ederrian eta atzera bira egin zuten [illegible] Donosti aldera.

TXINEL BERRIA

Autu dute Madrilletik len udalak [illegible] zun bezela gure lagun abertzale Ulari[illegible] tar Joseba Mikel, artu-itzak nere eta [illegible] gun guztien zorionak.

GUDARITZETIK

Bere guraso senideak ikertzen [illegible] izan degu abertzale Plazaola'tar Ana[illegible] tasi.

DEUN KEPA

Deun Kepa'ren egunian txadon nagusian izango da eleizkizun ederra bost [illegible] dien ikerpena ikurton deunagaz, eta [illegible] belguntzakoak laguntzen diotela.

EGI-ALDE.

GALDAKAO'TIK

¡ZORIJONEKO ERROMERIJAK!

Sarri-sarri irakurten dauskube, erromeriyan eztala erromeririk egiten, igaro batzubetan aldentzen dalako erespatza [illegible] musika bandia, ta ¡tamalez beterik egon dala erriko gaztedija! Ederto da, gaztedija jolastu biar dira, baña ¿zelako dantzaketak egiten ete-dira? ¿erromeri ori geure errirako eskatu?

NEGARGARRIJA

Egunero-egunero ikusten dogu. Gure baserri-neska mutillak euren lanera ta [illegible] tokitik etxeratzen dirianian, nai txadonatzen, nai erromeriratzen dirianian [illegible] kelo'un uts-utsak izan da-be, erdera [illegible] bille, euren artu emonetan. ¡Lotsagarri da! baña, egija "tamalez".

Euskeldun utsak bai, izatez, baña [illegible] tadaz ta darabillen izketaz, euskeldun [illegible] euskotar antzik be eztabe, nik neure aldetik erakutsi eustan berbeta gozua baño [illegible] dakit, baña onek euraena ezetsi ta [illegible] rena darabille.

Neure aiskide "Lapiko txiker"-en [illegible] miak ezauztanez, oso jakituna da [illegible] bizkor au, erderaz dagikenen baserneska-mutillaen artian, amaika [illegible] bai-dala. Berak entzuten daben [illegible] lotsa dala esaten, baña, geyenez [illegible] dala egiten dabena, ta, berau ondo egon ba'lebe...

Erri onetako gaztedijak bide orri jarraitzen ba'dautso urte gitxi barru, euskerarik, entzun bere ez-dogu egingo.

Galdakaotar asko zoratuta dagoz "Gaztarra" iñustan beiñ, osterantzian, [illegible] berbeta gozua itzi ta ¿orrelako kirten[illegible] rijak esango leukiezala uste dozu?

Egijak min emoten dau, baña emen [illegible] errijan euskotasuna erakusten emoten [illegible] alegintzen gariena egiztuteko, erderaldia [illegible] ta atzerri-oitura bioez bakarrik dagiz[illegible] esan lei.

Abertzaliak bai, baña bakotxa bere [illegible] ra, olantxe autortzen emoten dogu egia [illegible] datan ta aurrerantzan be